

Heldu dira MONDRAGON UNIBERTSITATEra elkartrukeko ikasleak

2017/03/03

Atzo, martxo 2, osteguna, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultatean, Oñatiko campusean, ongi etorria eman zitzaien udaberriko txandan Unibertsitatera etorri diren atzerriko ikasleei.

Guztira, ikasturte osoan, 128 ikasle atzerritar etorri dira MONDRAGON UNIBERTSITATEra elkartruke programen bidez. Udaberriko txanda honetan, 60 ikasle dira heldu berriak.

Ikasle hauetatik 31, Goi Eskola Politeknikora etorri dira, 10 Enpresagintza Fakultatera eta 19 Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera.

Unibertsitatean egongo diren denbora honetan, 12k praktika eta proiektuak egingo dituzte (7k Goi Eskola Politeknikoan eta 5ek Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean) eta gainontzeko 48ek ikasketak osatuko dituzte.

Ongi etorri ekitaldiko programa, ondoren adierazten dena izan zen:

17:30 - Harrera - Jon Altuna, Errektoreorde Akademikoak

17:45 - Getting to know each other - Elkar ezagutzeko dinamika

18:30 - Appetizer - Aperitiboa

19:00 - Social meeting in Arrasate

Ongi etorri guztioi!

